

TEKNOLOGIA

Arriskuak eremu digitalean



DIANA FRANCO

Dugun digitalizazio ereduaren arriskuak daude. Hainbat aditu entzun izan dut sarean dauden arriskuez, horrekin bizi beharko bagenu bezala mintzatzen dira, aldatzeko aukerarik ez balego bezala.

Sarean dauden arriskueta sakontzen hitz berri asko aurkitu dit: ziberdelinkuentzia, ziberbullinga, sextinga, fake newsak, groominga, pribatutasuna... Neologismo hauen atzean ez dago gauza berri asko. Jorratu ditzagun atzean dauden hainbat ideia.

Lehenengo ideia jokabideena da. Pertsonen diseinatzeko ereduak teknologiek pertsonen jokatzeko moduak jasotzen dituzte. Beraz, pertsonok mundu analogikoan lapurtzen, erasotzen, iruzur egiten... dugun heinean, eremu digitalean berdin jokatzeko ereduak. Eremu analogikoan bezala, eremu digitalean zenbait jokabide hezkuntzarekin eta ezagutza partekatuz eragotzi daitezke, adibidez zelan detektatu ziberbullinga eta zer egin horrelako egoera bat pairatzen bazabiltza. Baina beste jokabide batzuk eragozteko, ziberdelituak direlakoak, zibersegurtasuna erabiltzen da, batez ere kanpo erasoetatik babesteko.

Jokabide eta segurtasunaren ikuspegitik pixkanaka ulertzen joan gara zelan jokatu eremu digitalean. Baina digitalean egun dugun arrisku larriena beste bat da: pribatutasuna. Pribatutasunaren komertzioaren sustatzen baita gaur egun dugun digitalizazio ereduaren zati handi bat eta eredu honek zelan funtzionatzen duen eta zein arrisku dituen ez digute kontatzen.

Plataformek esaten digute euren sistema seguruak direla eta gure pribatutasuna kanpo erasoetatik salbu dagoela. Baina, nork babesten gaitu euren sistema seguruaren baitan eta gure datuetan sustatuta diseinatu dituzten negozio ereduak gure bizitzetan duten eraginetik? Gaia sakon aztertu du, besteak beste, Jaron Lanier-ek, *Nork kontrolatzen du etorkizuna* liburuan.

Eremu digitaleko babesaz ari garela, segurtasunaz gain autodefentsaz hitz egiten hasi beharko dugu. Harremanak egiteko moduez, pribatutasunaz, eta azken finean, gure bizimodua babesteko neurriez. ●

NAZIOARTEA



Tigray bonbardatzen ari da Etiopiako Gobernuak

AXIER LOPEZ

2020ko azaroaren 4an, Etiopiako lehen ministro eta 2019ko bakearen nobel saridun Abiy Ahmedek iragarri zuen Tigrayn erabat hegemonikoa den Askapenerako Herri Frontearen (TPLF ingelesezko sigletan) aurkako erasoaldi militarren hasiera. Urtebete pasa da gerra abiatu zenetik eta urak ez dira inolaz ere baretu. Guztiz kontrakoa.

Azken bi asteotan hainbat bonbardaketa egin dute Etiopiako Armada Federalesko hegazkinek Mekelelen, Tigrayko hiriburuan. Artikulu hau idaztean erregistratutako azken bonbardaketan, urriaren 28an, sei lagun hil dituzte, horien artean hiru haur, eta zaurituen kopurua 30 ingurukoa da, zonaldeko biztanleek eta osasun-langileek BBC kateak Etiopian duen ordezkariaren zehaztu diotenez. Bonbardaketan ondorioz, Nazio Batuen Erakundeak bertan behera utzi ditu Tigrayrako hegaldi humanitarioak.

NBEren datuen arabera, Tigrayren aurkako erasoaldiak eta eskualdeari ezarritako blokeo zorrotzak 400.000 bat pertsona gosete egoeran utzi dituzte eta, gutxienez, bi milioi lagunek bizitokitik ihes egin behar izan dute. Horren aurrean, Etiopiako Gobernuaren azken erantzuna izan da irailaren 30ean NBEko agentzietako zazpi arduradun herrialdeetik kanporatzea, *“persona non grata”* deklaratu, Etiopiako *“barne arazoetan”* sartu izana egotzita.

Tigrayrekin mugan den Amhara eskualdean ere eragin zuzena izan du gatazkak. Hango herri batzuek misilen erasoak jasan dituzte, eta gatazkaren parte diren askotariko talde armatuek hilketa masiboak egin dituzte zonaldean. Sexu-indarkeria, mota honetako gerra gehienetan bezala, sistematikoa da, eta salaketak ugariak dira jada.

Bien bitartean, nazioarteko komunitateak gatazka odoltsu hau filma bailitzan ikusten jarraitzen du. Inmobilitate horrek herri oso baten sarraskiarekin aurrera jarraitzeko beta ematen dio Etiopiako Gobernuari. Are gehiago, armak nazioarteko merkaturian –Irango eta Turkiako droneak kasu– erosten jarraitzeko arazorik ez dutela izan ikusirik, maila diplomatikoan, Errusiak eta Txinak birritan blokeatu dute NBEren segurtasun-kontseiluan Etiopiako gerra zibilari buruzko ebazpen bat argitaratzea.

Alex Rundos eta Mark Medish Europar Batasuneko eta AEBetako Gobernuko goi-kargudun ohiek artikulu batean ohartarazi berri duteenez, Etiopia Jugoslaviaren antzera desintegratzeko arriskua dago, ondorio larriagoak eraginez, baldin eta gatazka amaitzeko ahaleginik ez badago. Beste gatazka batzuen katalizatzaile bihur liteke gerra hau, aurretik ere erabat ezegonkorra zen Afrikako Adarrean. Urtebete pasa da eta nazioarteak era batera edo bestera esku hartu beharko luke. ●